

Galdegaia hasikera perpausetan (I)

(Hamaika abere-ipu in liburuan)

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

Abstract

Nowadays, following one of Altube's laws (the informationally relevant phrase or galdegaia must be placed in front of the verb) this phrase is usually placed in front of the verb in Basque prose writing. In this article the author shows that some speakers of Bizkaian, or at least the ones in the book Hamaika abere-ipu in/Bizkaiko herri-alegia, don't place the galdegaia phrase in front of the verb in introductory sentences of narrative statements. In fact, in most cases they usually place it after the verb.

Laburpena

Gaur egun, Altuberen lege bat dela-eta (Galdegaia kokatu behar da aditz aurrean), euskal prosan aditz aurrean kokatu ohi da galdegaia. Artikulu honetan egileak erakutsi gura dau Bizkai hitzun batzuk, *Hamaika abere-ipu in/Bizkaiko herri-alegia* liburutxoak behinik behin, ez darabilela galdegaia aditz aurrean kontakizunen hasikera perpausetan, ezpabere atzean, eta nagusiro erabili be.

Keywords: galdegaia, hitzordena, hasikera perpausak (oraciones iniciales), informazio gunea, informazio osagarriak, aldaera.

Hitz gakoak: informationally relevant phrase, *galdegaia*, word order, initial sentences, information zone, information complements.

0. Sarturrea

S. Altube jaunak orain dala 80 urte-edo emon eban lehenengoz galdegaiaren legea: galdegaia (fokoa) kokatu behar da aditz aurrean, ezkerretara, aditzari inkau-inkauta. Harrezkero lege horrek kritika zaparrada handia eragin dau; hizkuntzaririk handienak izan ebazan kontra, berbarako K. Mitxelena, L. Villasante eta J. M. Mokoroa. Oraintsu be beste hizkuntzalari bik be euren tesia egin dabe galdegai dontsuaren ganean: E. Osak esan dau batez be gure hiztunik onenek, baserritarrek, eurek hausten dabela gehien galdegaiaren legea; B. Hidakok oraintsu argitaratu dau artikulu bat *Senex* aldizkarian, 25. zenbakian, eta, datuak eskuan, ikusita zelako ustela dan Altuberen legea, beste bat proposatu dau. Hona hemen laburtuta (txarto ulertu ez badot) zer gomendatzen dauan:

1. Ipu in galdegaia, laburra bada, aditz aurrean.
2. Ipu in galdegaia, luzea bada, aditz atzean.

Era berean, Hidakok aztertu dau galdegaiak zer kokaleku dauan perpaus barruan -aditz aurrean edo ostean- tradizino euskeran eta gaurkoan, eta hona hemen zeintzuk konklusino emon dauazan:

	Aditz ostean	Aditz aurrean	Bestela
Tradizino euskeran	79,0%	10,8%	10,2%
Gaurko euskeran	20,1%	51,2%	28,7%

1. Taula: Galdegaiaren kokalekua

Ikusita datuok, batez be tradizinoak, traizinoak eginen joko tradizinoari.

Gauzak holan, guk geuk be jorratu gura dogu zer kokaleku hartzen dauan galdegaiak liburutxo kaleratu barri baten, Hamaika abere-ipu in/Bizkaiko herri-alegia izenekoan, zeinetan alegia batzuk jasoten diran, han-hemengo hitzunik ahoz (bizkaitarrez) emonikoak. Baina bakarrik ikertu gura doguz alegiotan hasikera perpausak, eta eurotan non erabilten dan galdegaia: aditz aurrean ala atzean.

Azterketea mugatuko dogu baiezko perpaus hutsetara (Mikelek 10 euroren frutea jaten dau astero) eta ez doguz jorratuko ez ezezkoak ez galdezkoak (Mikelek ez dau astero jaten 10 euroren frutea / Mikelek 10 euroren frutea jaten dau astero?).

Dagoaneko esan dogu artikulu honetan zer dogun helburu nagusizat. Izan be, badaukagu beste helburu bat sekundarioa: hasikera perpaus aztergaiotan manipulau egin gura doguz osagaiak, tokiz aldatu, batez be, galdegaia eta aditza, eta ikusi horrek guztiorrek zelan eragiten deuten perpaus komunikazinoan, hau da, ea errezagot edo gatxago irakurten diran perpausak.

Hona hemen zelako pausak emongo doguzan artikulu hau garatzeko: lehenengo, ikusiko dogu zelako abantailak daukazan perpaus batek komunikazinoaren aldetik, galdegaia erabili ezkerre aditz atzean; bigarren, hasikera perpausak aztertuko doguz: batetik, ikusiko dogu zein lekutan kokatzen diran galdegaiak; eta, bestetik, galdegaiak eta aditzak lekuz aldatuz gero, horrek zelan eragiten deuten perpaus komunikazinoan (errezagot edo gatxago irakurri); eta, azkenez, konklusinoak emongo doguz.

1. Abantailak galdegaia aditz ostean erabili ezker

Hartu ezker edozein perpaus, kargutuko gara zenbat eta aurrerago dagoan aditza, orduan eta errezagot irakurten dala, batez be galdegaia bada luzea edo konplexua. Teorian esanikoa hobeto ulertzeko praktikan, perpaus moltso bi emongo doguz (aditzak, kortxete artean; galdegaiak, baltzez):

(a)

Atzo [afaldu neban] **neska baltz bategaz**

Atzo [afaldu neban] **20 urteko neska baltz bategaz**

Atzo [afaldu neban] **euskeraz dakian 20 urteko**

neska baltz bategaz

(b)

Atzo **neska baltz bategaz** [afaldu neban]

Atzo **20 urteko neska baltz bategaz** [afaldu neban]

Atzo **euskeraz dakian 20 urteko neska baltz**

bategaz [afaldu neban]

Agirian dagoanez, lehenengo moltsoan galdegaiak dagoz aditz ostean; bigarrenean, ostera, aditz aurrean, euren leku kanonikoan. Edozein perpaus, orokorrean esateko, osagai mota bi ditu: aditza eta osagarriak. Aditzak dauka perpausaren informazio nagusia (gunea), eta osagarriek dauke, izenak berak dinoanez, aditzaren informazio osagarria. Osterantzean esateko, osagarriek aditzari egiten deusie erreferentzia, aditzetik dagoz eskegita, beraren mendekoak dira-eta, beraren sateliteak.

Kontuan hartzen badogu zer esan dogun aurreko paragrafoan eta ikusten badoguz goragoko adibideak, argi dago, guk uste, perpaus baten informazio gunea aditza bada, berau zenbat eta aurrerago egon perpaus, hainbat eta lehenago irakurriko dala mezu nagusia, eta hori dala-eta, errezagot perpaus osoa; eta, alderantziz, aditza zenbat eta urrunago ipini, orduan eta beranduago irakurriko dala mezu nagusia, eta hori dala-eta, nekezago, penazago, perpaus osoa. Beraz, itzelezko garrantzia dauka, ondo eta errez prozesuak bada perpaus bat, aditza ahalbait aurreren erabilteak. Horrexegaitik beragaitik goian (a) moltso perpausak errezagot irakurten dira, edo prozesau, (b)koak baino.

Eta hizkuntza batek, gure kasuan euskereak, erea emoten badeusku aditza aurreratzeko, galdegaia atzera botata, zergaitik ez aurreratu aditza? Edo masokistak gara, eta gustetan jaku nekez eta penaz irakurtea? Gurago dogu aldats gora ibili aldats behera baino?

2. Adibideak aztertzen

Banan-banan aztertuko doguz alegian alegiako hasikera perpausak (zeintzuk parau doguzan euskera batuan). Eurotan aditzak kortxete bidez adiarazota dagoz eta galdegaiak, baltzez. Hasi gaitzan lehenengo perpausagaz:

2.1. Mirua eta Azeria

*Behin baten [zan] **Mirua**, eta Miruak [euki eban] zugatz baten bere habiea, eta [euki ebazan] bere kumatxoak han habian. (13 or.)*

Lehenengo perpaus aditz atzean dago galdegaia, eta, holan, hausi egiten da galdegaiaren legea, zeinaren arabera honan idatziko litzatekean:

*Behin baten **Mirua** [zan],*

Aldaera hori eta jatorrizko perpaus antzera irakurten dira erreztasunaren aldetik, baina bat aukeratu behar izan ezker, jatorrizkoa aukeratu genduke, aditza dau aurrerago-eta. Aditza aurrerago izanda, esan dogu 1. apartaduan, horrek dakar lehenago irakurtea perpausaren informazio gunea, informazio muina, eta, holan, errezagot prozesetea perpaus osoa. Gure lehenengo perpaus hori bestera be emon leiteke, *ba*-aurrizkia erabilia:

*[Bazan] behin baten **Mirua**,*

*Behin baten [bazan] **Mirua**,*

Bigarren perpaus be huts egiten dau galdegaiaren legeak, galdegaia aditz atzean dago-eta. Galdegaizaleek aditz aurrean parauko leuke galdegaia. Hona hemen zelan:

eta Miruak bere habiea zugatz baten [euki eban],

Askotxok beste era batera be erabili leikee, errespetata galdegaiaren legea, baina aditz atzera eroanda *bere habiea* osagarria. Honan:

eta Miruak zugatz baten [euki eban] bere habiea,

Azkenengo aldaerok nekeztuago irakurten dira jatorrizko baino, batez be azkenurrekoa. Oraindino hirugarren perpaus daukagu azterkizun gure lehenengo hasikera perpaus. Han be galdegaiaren legea pikutara botaten dau hiztunak, galdegaia aditz ostean darabil-eta. Askotxok honan erabiliko leukee:

eta bere kumatxoak [euki ebazan] han habian

Hori errez irakurten da, jatorrizko bestean, baina okerrago egongo litzateke aurrerengo lekura pasako bagendu *han habian*:

eta han habian bere kumatxoak [euki ebazan]

Igaro gaitzan bigarren hasikera perpausera:

2.2. Azeria eta Otsoa

Aulestiko Zubero auzoan [egoan] pozu bat, Legarreko pozua esaten jakona. (19)

Bigarren perpaus aztergai horrek ez du beteten galdegaiaren legea, aditz atzean dago-eta galdegaia. Ondoko hiru eretan be erabilten da gaur egunean:

-Aulestiko Zubero auzoan Legarreko pozua esaten jakon pozu bat [egoan]

-Aulestiko Zubero auzoan pozu bat, Legarreko pozua esaten jakona [egoan].

-Aulestiko Zubero auzoan pozu bat [egoan]
Legarreko pozua esaten jakona.

Lehenengo aldaerea dabil nagusi. Txarra be txarra begitantzen jaku: batetik, irakurteko nekagarria egiten dalako (arnasestuka heltzen da irakurlea azkenera, aditza eroanda dago-eta azkeneko kokalekuraino) eta, bestetik, ez dalako itauntzen “*Legarreko pozua esaten jakon ZENBAT pozu egoan?*”, ezpabere, “*ZER zegoan?*”. Lehenengo aldaerea idatzi ezker, idazleak ez leuke erakutsiko gaitasun diskursibo ona; ez leuke-eta jakingo egoki erantzuten egoera komunikatiboak zer eskatzen dauan, horri.

Bigarren aldaerea ez dago santu-santu emonda: (ia) lehenengo aldaerea besteko nekez irakurten da, gure ustez.

Hirugarren aldaera ondo dago, ia jatorrizkoa besteko errez prozesetan da-eta, baina jatorrizko perpaus dagoan lotura osagarri biren artean, *pozu bat* eta **Legarreko pozua esaten jakonaren** artean, ezin hobea da, osagarriok alkarren segidan dagoz-eta; azkenengo aldaeran, ostera, ez dago jatorrizkoan besteko lotura ona, tartea dago-eta aitaturiko osagai bien artean.

Oratu deiogun hirugarren hasikera perpausari:

2.3. Azeriaren hiru egiak

Muruetako Telleria lekuan bateldun bat [egon zan], Agiña izena eukana. (27)

Perpaus horretan beteten da Altuberen legea, hau da, galdegaia aditz aurrean dago. Askok hurrengo modu bietariko baten emongo leuke:

Muruetako Telleria lekuan Agiña izena eukan bateldun bat [egon zan],

Muruetako Telleria lekuan bateldun bat, Agiña izena eukana [egon zan],

Aurreko perpaus esan dogu zertan egiten daben koxo aldaera horreek. Aurreko (2.) perpausaren egileak, hiztunak, honan emongo leuke 3. perpaus aztergaia:

Muruetako Telleria lekuan [egon zan] bateldun bat, Agiña izena eukana

Aldaera bakotxaren alde on eta txarrak komentau doguz aurreko perpaus, eta hemen ez doguz barrero esango.

Oratu deiogun hurrengo perpausari:

2.4. Txolin Sierra

Urriolan Txakurra ei [egoan], Urriolako Sierrean, Txolin izena ebana: Txolin Sierra. (31)

Laugarren hasikera perpaus horretan beteten da galdegaiaren legea (galdegaia aditz aurrean dago). Askok hurrengo era bietariko batean emongo leuke perpaus aztergai hori:

Urriolan Urriolako Sierrean, Txakurra, Txolin izena ebana ei [egoan]: Txolin Sierra

Urriolan Urriolako Sierrean, Txolin izena eban Txakurra ei [egoan]: Txolin Sierra

Jatorrizkoa baino penazago irakurten dira, nekagarriago, aditza lartxo atzeratu da-eta. Beste hiztun batzuek honan emongo leuke perpaus (*ba-* aurrizkia erabilia):

Urriolan, Urriolako Sierrean, [ba ei egoan] Txakurra, Txolin izena ebana: Txolin Sierra

[Ba ei egoan] Urriolan, Urriolako Sierrean, Txakurra, Txolin izena ebana: Txolin Sierra

Ondo emonda dagoz biok, gure eritxiz. Aurreko aldaerak baino hobeto dagoz, hareetan aditza atzeregi dago-eta.

Heldu deiogun hurrengo perpaus aztergaiari:

2.5. Abereen batzarra

[Esaten dabe] antxina baten egon zala abereen artean gaxo handi bat, eta hilten ei ziran hamabinaka asto, hamabinaka tigre, hamabinaka lehoi, hamabinaka otso. (37)

Hasikera perpaus horretan, lehenengo perpaus osagaiak ez dagoz antolatuta batzuen gogoko, galdegaia aditz atzean dago-eta eta perpaus aditez hasten da. Honan ipiniko leuke Altuberen jarraitzaileek:

Antxina baten abereen artean gaxo handi bat egon zala [esaten dabe],

Itauna danez “*ZER esaten dabe?*”, aditza azkenengo lekuan parau behar da, eta gainerakoa aditz aurrean; hau da, zelako hurrenkerea itaunean, halako ordenea erantzunean. Aldaera lorrin hori hobetu leiteke, aditz nagusia igarota lehenengo lekura (halan dago jatorrizko perpaus be):

[Esaten dabe] antxina baten **abereen artean gaxo handi bat egon zala**,

Badago oraindino hobetzerik, izan be, perpaus kompletiboaren informazio nagusia (aditza) azkenengo lekuan dago. Zergaitik ez aurreratu?

Esaten dabe antxina baten gaxo handi bat egon zala abereen artean

Oraindino gehiago aurreratu leitezke aditza eta menderagailua (-eLA) perpaus kompletiboan, eta, holan, jatorrizko perpausa izango genduke, zeina dogun nahien, gogokoen.

Bigarren perpausaren be ez da errespetetan galdegaiaren legea, eta errespetetakotan honan geratuko litzateke:

eta hamabinaka asto, hamabinaka tigre, hamabinaka lehoi, hamabinaka otso [hilten ei ziran]

Euskerearen zoritxargarri, holako perpausak, egin egiten dira.

Oratu deiogun 6. hasikera perpausari:

2.6. Astoa, Txakurra, Katua eta Oilarra

Baten Asto bat [egoan] bere etxean. (43)

Hasikera perpaus horretan aditza kokatuta dago galdegai atzean, gaur eguneko erabilera nagusiaren kontra, zeina honan izango litzatekean:

Baten Asto bat bere etxean [egoan].

Aldaeran aditza urruntxoago dago (azkenengo lekuan), eta nekeztxoago irakurten da jatorrizko perpausa baino. Edozelan be, alde hutsa dago bien artean, baina zer edo zergaitik erabilten eben-dabe gure hiztunik onenek aditza aurreratuta, galdegaiaren fetitxeari taket eginda, muzin.

Hasikera perpaus hori, beste hiztun batzuek hurrengo moduetariko batean adiarazoko leukee, ba-aurrizkia erabilita:

*[Baegoan] baten Asto bat bere etxean
Baten [baegoan] Asto bat bere etxean*

Heldu deiogun 7. hasikera perpausari:

2.7. Gizona eta Otsoa

*Gizon bat [joan zan] **biajean**, eta bidean kantara baten aurretik igarokeran, Otsoa topau eban etxunda kantara ertzean, harri bat lepoan ebal, ha altxau ezinik. (49)*

Lehenengo perpausak, dagoanean, urratu egiten dau galdegaiaren legea, nahiz eta perpausa txikia izan (aditza eta osagarri txiker bi). Dagoaneko ikusi doguz perpaus batzuk, nahiz eta laburrak izan, galdegai dabela aditz ostean. Barriro helduta jagokun hasikera perpausari, honan geratuko litzateke lege kanonikoaren usadioan:

*Gizon bat **biajean** [joan zan],*

Eta juntagailuaren ondorik, mendeko perpausaren (eta bidean kantara baten aurretik igarokeran) galdegai aditz aurrean dago; hurrengo perpausaren be (Otsoa topau eban etxunda kantara ertzean), galdegai-edo (Otsoa) aditz aurrean dago.

Aldatu gaitezkan hurrengo hasikera perpausera:

2.8. Azeria eta Amiamua

*Azeriak [konbidau eban] Amiamua edo Zikoinea **bere etxera**. (55)*

Perpaus horretan, 5ean legez, galdegai ez dago aditz aurrean, berari inkau-inkauta, ezta lehenengo kokalekuan be aditz ostean, ezpabere, hurrengoan, azkenengoan. Hau lar gogorra da idazten dabenentzat galdegai bidaia lagun hartuta. Perpaus hori honan ipiniko leukee gehien-gehienek gaur egun:

*Azeriak Amiamua edo Zikoinea **bere etxera** [konbidau eban]*

Aditza lar urruntxo egiten da, eta hori dala-eta, nekezago prozesetan da perpausa. Beste modu bat be badago perpausa arintzeko, eta galdegaiaren legea beteta:

*Azeriak **bere etxera** [konbidau eban] Amiamua edo Zikoinea*

Askotan eta askotan galdegaiaren legea errespetauta be perpausak eregi leitezke arin, errez irakurteko moduan, eta horren erakusgarri azkenengo aldaerea, eta beste pila bat.

Pasa gaitezkan hurrengo perpausera:

2.9. Astoa eta Txerria

Behin baten Astoa eta Txerria haserretu [egin ziran], sarri ibiltzen ziran alkarregaz eta. (59)

Hor, lehenengo perpausean aditza dago galdegai, *egin* aditz enfatizatzailearen bidez adiarazoa. Honan idatzita be, ez dogu uste inor konkortuko danik, harrituko:

Behin baten haserretu [egin ziran] Astoa eta Txerria,

Baina normalago da jatorrizko perpauseko ordenea; lehenengo, erreferentea aurkeztu behar da-eta, hau da *Astoa eta Txerria* osagarria. Beraz, lehenengo perpausean beteten da galdegaiaren legea, baina ezin esan aditza lar urrun dagoanik, arnasestuka jarteraino.

Bigarren perpausean (ez gara ausartzen esaten mendekoa dala; eztabaida handiak dagoz zer dan) *sarri* da galdegaia, eta berau aditz aurrean dago; beteten da, hortaz, galdegaiaren legea. Bada kontu bat bitxia batzuentzat: *eta* partikulea ez dago aditzaren hurrengo. Honela:

alkarregaz sarri ibiltzen ziran(-)eta.

Ahozkoan normala da eta egotea jatorrizko perpausean legez. Holan idatzi ezker, hots, *alkarregazen* atzean, zelan idatzi beharko genduke, marra dauala, edo barik? Gu marraren aldekoak gara (aldaeran marra artean ipini dogu parentesia, Euskaltzaindiak aukerea emoten dau-eta). Jatorrizko perpausaz eta gure aldaereaz ganera, bada beste aukera bat, eta guk sarritxotan erabilten dogu:

sarri ibiltzen ziran(-)eta alkarregaz

Aztertu daigun hurrengo perpausa:

2.10. Zazpi Ahuzkume

[Izan zan] behin Ahuntz bat. (63)

Perpaus hori gogorregia da askotxorentzat; izan be, galdegaia aditz atzean dago, aditzetik bigarren lekuan, eta aditz aurrean ez dago ezer, ezertxo be ez. Lartxo! Hona hemen zelan emongo gendukean gehienok:

Behin Ahuntz bat [izan zan]

edo

Behin [izan zan] Ahuntz bat.

Aztertu daigun ondorengo hasikera perpausa:

2.11. Ondo eginaren pagua

Egun baten Gizon bat basora [joan zan], eta basoan zehar doala Lukiaren zulora jausi zan. (67)

Lehenengo perpausean beteten da galdegaiaren legea, aditz aurrean dago-eta galdegaia. Baina ikusita aurreko beste adibide batzuk, beste hiztun batzuek trankil be trankil eroango leukee galdegaia aditz atzera. Hona hemen zelan:

Egun baten Gizon bat [joan zan] basora,

Bigarren perpausean be errespetetan da arrasatearraren legea (eta ondo dago), baina hemen be esan leiteke lehenengo perpausaren ganean esandako gauza bera galdegaiaren toki-aldaketaren ganean, hau da, aztertzen dihardugun alegia bilduman beste hiztun batzuek galdegaia (*Lukiaren zulora*) erabiliko leukeela aditz ostean. Honan:

eta basoan zehar doala jausi zan Lukiaren zulora.

3. Konklusinoak

Hona hemen laburtuta zertzuk agertu diran:

1. Alde batera itxita tituluetako kontuak, eta oratu ezker bakarrik artikulu honetako helburu nagusiari, hau da, azterturiko zenbat perpausak hausten daben galdegaiaren legea, jorratu doguzan 11 perpausetan 6k bete egiten dabe, eta 4k ez, eta beste bat berezia da, 9. adibidea, eta bertan aditza bera dago galdegai (...*haserretu egin ziran...*). Beraz, *Hamaika abere-ipu*n liburuan %60an hausten da Altuberen legea.

2. Azterturiko adibideetan, galdegaia, berau aditz ostean kokatzeko, ez dau zertan izan behar luzea, adibideetan ageri dira laburrak be, baita (gehienak) elementu bakarrek be.

3. Bada beste datu bat be garrantzitsua: perpaus gehienetan edo guztietan, Altuberen legea beteten danetan, aditza oso aurrera darabile alegiotako hiztunok, gaurko idazle gehienek ez legez, eta holan saihesten dabe atzerakarga (alperreko gainkarga) eta lortu entzule-irakurleentzat testu ulerterrazak (gaitasun diskursibo txarrak eragindako *alperreko* neke barik). Perpaus guztietan-edo, guk uste, garrantzi handiagoa dauka euki galdegaiaren totema gurtzeak baino aditza ahalik aurreren erabilteak.

4. Logikoa da pentsetea alegiotako hasikera perpausotan galdegaia gehienetan badago aditz ostean, alegia osoetan be galdegaia gehienetan egongo dala aditz atzean.

5. Azkenengo gogoetea: idazten dogunean, zergaitik ez idatzi alegiotako hiztunok legez, aditza ahalik eta aurreren eta galdegaia aske, azkenengo urteotako uzartpetik aske, holan errezago prozesetan badira perpausak?

4. Aipamenak

- Altube, S. (1975). *Erderismos*. Bermeo: Euskaltzaindia.
- Hidalgo, V. (2002). *Hitzen ordena esaldian*, Senez 25. zb.
- Kaltzakorta, M. (1997). *Norbaiten edo zerbaiten berri ematen*, Administrazioa Euskaraz, 15 zb.
- Labayru Ikastegia, (1997). Hamaika abere-ipuina/Bizkaiko herri-alegiak. Labayru.
- Mitxelena, K. (1981). Galdegaia eta mintzagaia euskaraz. *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*. Univ. de Deusto.
- Mocoroa, J. M., Eskutitza, I. Eizmendi “Basarri-ri” erantzun. In Irigoyen, A. (1979)
- (1980). “Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak”. Euskera.
- Osa, Eusebio (1990). *Euskararen hitzordena*. Euskal Herriko Unibertsitatea
- Villasante, L. (1975). Hitzaurre gisa. In S. Altube, *Erderismos*, Euskaltzaindia.
- (1980): *Sintaxis de la oración simple*. EFA. Serie Eleizalde